



---

## OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Bilera mota:** Ohikoa  
**Eguna:** 2021.05.13  
**Ordua:** 18:30tan  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

**Bertaratuak:**

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.

**Bertaratu ez direnak:**

- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

### AZTERGAIK:

#### 1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2021/04/07ko akta aho batez onartzen da.

#### 2. HERRI-LURRETAKO ORDENANTZAREN PAC TARIFAREN INDARGABETZEA.

Idazkariak azaltzen du Arantzako Udalaren herri-lurretako aprobetxamenduak arautzen dituzten Ordenantzen Testu Bateginaren tarifen ataleko e) apartadoan honako hau dioela:

*“e) NPB (PAC)eko dirulaguntzan deklaratzeko zeditzen den lurra:*

*Orokorrean: 3 euro/ha.*

*Gizarte segurantzaren, nekazaritza arloan jarduten duten norberaren konturako langileentzako sistema berezian aitan daudenak: 0 euro."*

Honi dagokionez, Imanol Lukanbio zinegotziak azaltzen du Arantzako herri-lurretako Ordenantzaren aldaketaren kudeaketak egiten hasi zirenean, hasiera batean ez zegoela aurreikusia honako tarifa hau kobratzea eta errore batengatik lehen aipaturikoa zehaztu zela.

Halaber, Idazkariak azaltzen du honako tarifa hau indargabetzeko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedaturiko prozedura jarraitu beharko zela, izan ere, herri-lurretako aprobetxamenduak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa bat baita.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- Arantzako Udalaren herri-lurretako aprobetxamenduak arautzen dituzten Ordenantzen Testu Bateginaren tarifen ataleko e) apartadua indargabetzea.
- 2.- Akordio honen erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

### **3. PUTZU BELTZERAKO APARKALEKUAREN ERREGULAZIO ORDENANTZA.**

Idazkariak Putzu Beltzerako aparkalekuaren erregulazio Ordenantza oraindik prest ez dagoela azaltzen du, izan ere, hainbat alderdi eduki beharrak dira kontuan eta horiek oraindik ez dira behar bezala zehaztu.

Zinegotziek gaiaren inguruan eztabaidatzen dute, izan ere, ez zen aparkalekua erregulatu beharko, pasabidea baizik. Honen inguruan azaltzen dute Putzu Beltzera doan bidearen inguruan ez daudela Udalaren jabetzakoak diren lurrik aparkaleku gisa erabil daitezkeenak, hori dela eta aparkalekuak kudeatzea ez zen bideragarria izanen. Era berean azaltzen dute, egokiena pasabidea erregulatzeko izanen zela, modu honetara auto pilaketak eragotzi ahal izateko.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- Putzu Beltzerako pasabidearen erregulazioa Ordenantzaren kudeaketei hasiera ematea.
- 2.- Honako puntu hau hurrengo Osoko Bilkuran jorratzeko uztea, hala badagokio.

### **4. 2021-2022 IKASTURTERAKO PELLE TTIKI HAUR ESKOLAREN PLEGUAREN ONESPENA.**

Idazkariak 2021-2022ko ikasturterako Pelle Tiki haur eskolarako aurkezturiko aurrematrikulak ikusirik, haur heziketa zerbitzuak emanen dituen pertsona edo enpresaren kontrataziorako kudeaketekin hasi dela azaltzen du.

Honi dagokionez, zerbitzu kontratu bat izanen zela ikusirik, Kontratu Publikoei buruzko, apirilak 13ko, 2/2018 Foru Legearen 80. artikuluan xedaturiko prozedimendua jarraitzea egokiena izanen zela azaltzen du, hau da, prozedimendu sinplifikatua. Hau horrela izanik, kontratuaren esleipena erregulatuko duen plegua azaltzen du. Bertan, alde administratibo eta teknikoak ahalik eta egokien zehaztu nahi izan dira, etorkizunean eragozpenik ez sortzeko, izan ere 5 urtetara luzagarri izaten ahalko da kontratua, hala badagokio.

Zinegotziak gaiaz eztabaidatzen dute, hauen iritziz aipaturiko esleipena egiteko lizitazioaren prezioa pixka bat estua da, horregatik, malgutasuna emateko eta zerbitzu egoki bat lortzeko, lizitazioaren prezioa 24.000'00€tara igotzea adosten dute. Era berean, zerbitzua emanen duen langileak baja hartu ezkeru sortu lezaken egoera eta gainkostuaren inguruan solasten dute, izan ere, honako egoera hau eman ezkeru Pelle Ttikiko zerbitzua emateko kostua aunitz goituko zen. Hau horrela izanik, pleguan langilearen bajarengatik sortutako gainkostua gehieneko 5.500'00€tara mugatzea adosten dute eta, era berean, honako kostu honetan egindako beharpenak puntuatzea aurkeztutako kostuaren gaineko proposamen merkeenari puntuazio handiena ematea eta alderantzizko hiruko erregela baten formula aplikatzearen ondorioz gainerako puntuazioa ematea, gehieneko 20 puntura arte.

Osoko Bilkurak, aurreko aldaketa guztiak gauzatu ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- 2021-2022 ikasturterako Pelle Tiki haur eskolaren esleipena erregulatuko duen pleguari onespina ematea.
- 2.- Kontratu Publikoei buruzko, apirilak 13ko, 2/2018 Foru Legearen 80. artikuluan xedaturiko prozedimendu sinplifikatu jarraitzea, iragarkia Nafarroako Gobernuko Lizitazio Atarian argitaratuta edonorrek bere proposamena aurkeztu ahal izateko.
- 3.- Lizitazioan parte hartzeko gonbita Arantza inguruko 5 enpresei bidaltzea, posible bada.

## **5. ORBAIZETAKO UDALAK AURKEZTURIKO MOZIOARI ATXIKITZEKO ONESPENA.**

Idazkariak Arantzako Udalak Orbaizetako Udaletik jasotako mozioa azaltzen du (Mikel Zabaltza gazte nafarraren heriotza ikertzeko eta argitzeko eskatzen duen adierazpena).

Osoko Bilkurak bere adostasuna eta jarrera adierazten du tortura-egintza oro arbuiatzeko, beharrezkotzat eta funtsezkotzat jotzen baitu toki-erakundeek gertaera horien aurka borroka egitea, horiek ikertu eta zigortu ez izanagatik.

Hori guztia dela eta, Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Orbaizetako Udalak Aezkoako Batzar Nagusiarekin batera aurkeztutako mozioari atxikitzea.

2.- Erabaki hau Orbaizetako Udalari eta Aezkoako Batzar Nagusiari jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

## 6. ALKATEAREN EBAZPENAK

48/2021-59/2021 arteko Ebazpenak berretsi egiten dira.

## 7. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 21:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

**ALKATEA,**

**IDAZKARIA,**



Dabid Iturria Almandoz

Nagore Madariaga Iriarte